BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/06/03

# Gernikako Arbolaren landare bat hazten ari da daborduko Astigarragako Murgia parkean

Astigarragak, Gernikako Arbolaren, Euskal Herriaren bake eta askatasun sinboloaren, oinordeko baten landaketa ekitaldi ofiziala jaso dau gaur. Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria eta Zorione Etxezarraga Astigarragako Udaleko Alkatea izan dira herritar guztientzat zabalik egon dan zeremoniaren buru. Bertara, Gipuzkoako udalerriko eskolako berrogeta hamar ikasle inguru be gerturatu dira. 1978 eta 1985 artean erraildako Tomas Albaren, Joseba Barandiaranen, Agustin Irazustabarrenaren eta Bixente Perurenaren senideak be bertan egon dira.

Ekitaldian, 1853an idatzitako Jose Maria Iparragirreren “Gernikako Arbola” ereserki ezaguna interpretatu da, Gernikako haretx ezagunari eta euskal foruei eskainitako benetako omenaldia. Landaketaren ostean, ohorezko aurreskua dantzatu da, eta Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkari gorenak landarearen egiazkotasunaren ziurtagiria entregau dau.

Gernikako Arbolaren oinordekoa Astigarragako Murgia parkean hazten ari da daborduko, eta holan bat egingo dau XIX. mendetik bost kontinenteetako hainbat lekutan landatu diran bostehun landare inguruakaz. Astigarraga, Gernikako haretxaren oinordekoa daukien herrien zerrenda luzean sartu da: Göteborg, Padron, Laudio, Pforzeim, Sidney, Auschwitz edo Washington, beste askoren arten. Ekitaldia, haretx txikiaren aurrean atara dan familiako argazki bategaz bukatu da.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
03/06/2019

# Un retoño del Árbol de Gernika crece ya en el parque Murgia de Astigarraga

Astigarraga ha acogido hoy el acto oficial de plantación de un retoño del Árbol de Gernika, símbolo de paz y libertad del pueblo vasco. Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, y Zorione Etxezarraga, Alcaldesa del Ayuntamiento de Astigarraga, han encabezado la ceremonia, abierta a la participación de la ciudadanía, y a la que han acudido medio centenar de alumnos y alumnas de la escuela de esta localidad guipuzcoana. También han estado presentes familiares de las víctimas Tomas Alba, Joseba Barandiaran, Agustín Irazustabarrena y Bixente Perurena, asesinadas entre 1978 y 1985.

Durante el acto se ha entonado el famoso himno de José María Iparragirre "Gernikako Arbola", compuesto en 1853, todo un homenaje al famoso roble de la Villa foral y a los fueros vascos. Tras la plantación, se ha bailado un aurresku de honor y la máxima representante de las Juntas Generales de Bizkaia ha hecho entrega del certificado de autenticidad del retoño.

El esqueje del Árbol de Gernika crece ya en el parque Murgia de Astigarraga, uniéndose así al cerca de medio millar de retoños que desde el siglo XIX se han plantado en lugares de los cinco continentes. Astiagarra se suma a la larga lista de localidades que cuentan con su propio árbol descendiente del roble de Gernika: Gotemburgo, Padrón, Laudio, Pforzeim, Sidney, Auschwitz o Washington. El acto ha terminado con una foto de familia ante el pequeño roble.